

**EUSKAL HERRIA XVIII. MENDEAREN BUKAERAN
ETA XIX. MENDEAREN HASIERAN**

Frai Bartolome (1768-1835) XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX. mendearen lehen erdian zehar bizi izan zen. Artikulu honetan, berak ezagutu zuen Euskal Herriaren egoera sozioekonomiko eta politikoaren berri ematen saiatuko naiz. Hain zuzen ere, jaio eta bizi izan zen testuingurua ezagutzeak, bera eta bere lana hobeto ezagutzen lagundu diezaigukelako.

XVIII. MENDEAREN BIGARREN ERDIA (1766-1800)

Frai Bartolome Erregimen Zaharra desegiten ari zen unean jaio eta bizi izan zen; Europako beste herrialdeetan bezala, Euskal Herrian ere aintzinako egiturak apurtzen ari ziren unean. Interesgarria da, beraz, Erregimen Zaharrak Euskal Herrian zituen berezitasunak aurkeztuz hastea. Izan ere, hauek behar bezala ulertzea ezinbestekoa da XVIII. mendearen bukaeran hasi eta XIX. mendean zehar gauzatu ziren aldaketa ugariak behar bezala ulertzeko.

Erregimen Zaharraren berezitasunak

Erregimen Zaharrak antolakuntza ekonomiko, politiko, sozial eta erlijioso oso berezia zuen Euskal Herrian. Ekonomiarri dagokionez, nekazal jarduerak ziren garrantzitsuenak. Honekin

batera, burdinolek ere garrantzi izugarria zuten. Kontuan izan behar da, garai hartan nekazarien gehiengoak hartzen zuela parte, hola edo hala, burdinaren ekoizpen prozesuan eta burdinoletako lana nekazaritzatik ateratzen ziren etekinen osagarri garrantzitsua zela nekazarien ekonomiarentzat.

Gizartearen antolakuntzari dagokionez, eskubide, bizimodu eta botere mailen araberako ezberdintasun nabarmenak eza gutzen ziren biztanleen artean. Krisi ekonomiko egoeratan areagotzen ziren ezberdintasunak ziren gainera. Ezberdintasun hauek sortzen zuten egonezina izango da, garai honetan gertatuko ziren matxinada eta altxamendu ugairen sorburua.

Politikari begieratzen badiogu, monarkia absolutua eta foru sistema ziren nagusi Euskal Herrian. Europako herri gehienetan bezala, Espainiako erregeak ere bere esku zituen estatuko botere guztiak. Dena dela, Euskal Herrian Foruak zeuden eta hoiek zinatzen zituenean onartzen zen bakarrik erregea. Zentzu honetan, nahiz eta errege absoluto bat onartu, euskaldunek askatasun maila handia zuten Erregimen Zaharrean.

Bukatzeko, erlijioak eta, bereziki, erlijio gizonak garrantzi handia zutela aipatu behar da. Frai Bartolome 1808. urtetik aurrera Karmeldarren predikaria eta 1817tik 1820ra Markinako Karmeldarren komentuko nagusi izan zela kontuan hartzen badugu, Markina eta inguruetako herritarrengan garrantzi eta eragin izugarria izan zuen gizakia izan zela pentsatu daiteke.

Dena dela, Erregimen Zaharra desagiten ari zen Frai Bartolome jaio zenean. Desegite hori adierazten duten gertaera ezberdinak aurkitzen ditugu XVIII. mendearen bigarren erdian zehar. Alde batetik, merkatari eta lur jabe handiek Foruen aurkako gero eta jarrera ageriagoa erakusten zuten. Bestalde, Frai Bartolome jaio baino urte bi aurretik, gizartea kolokan jarri zuen matxinada garrantzitsua ezagutu zen Euskal Herrian; 1766.eko matxinada, hain zuzen ere. Azkenik, Ipar zein Hego Euskal Herriko bizitzan eragin garrantzitsua izan zuen 1789. urteko Frantziako Iraultza eta honi lotuta datorren Komentzio

Gerra aipatu behar dira. Guztiak ere erregimen Zaharraren aurkako ekitaldi argiak bezala jo ditzakegu.

Foruen aurkako jarrera gero eta ageriagoa

XVIII. mendearen bigarren erdian Euskal Herriko politikaren ardatz ziren Foruen aurkako ekitaldiak gero eta ageriagoak ziren. Arrazoi ezberdinak aipatu badaitezke ere, garrantzitsuenarikoa merkatari eta lur jabe handiek Foruak garapen ekonomikoaren oztopo bezala ikusten zituztela da. Aldiz, herri xehearentzat, "Foruak elikagaiak merkeago lortzeko bidea ziren. Kontuan izan, Foruekin Euskal Herriko mugak barnekaldean zeudela eta ondorioz atzerritik itsasoz etortzen ziren produktuak merkeago lortzeko aukera zegoela, zergarik ez zutelako ordaintzen. Jose Extramianak dioen bezala, "Así, en el momento en que la industria debiera adquirir un nuevo impulso, surgen numerosos obstáculos y algunos de ellos topan con los Fueros. Estos estipulan que las aduanas se hallen en los límites del País Vasco y Castilla y no en las fronteras con el extranjero. Esa situación no ha sido perjudicial en gran parte del siglo XVIII porque el crecimiento demográfico permitía a la industria vasca vender muchos productos en la misma región a la vez que gozaba del casi monopolio colonial. La ausencia de derechos de aduana sobre productos importados del extranjero favorecía a los consumidores sin perjudicar a los fabricantes. A finales de siglo, las cosas cambian. El retraso técnico de la industria vasca tradicional aviva la importación de productos extranjeros más competitivos mientras que los artículos vascos han de pagar cada vez más derechos de entrada (a partir de 1780) en Castilla o en América. Los problemas económicos oponen a los grupos sociales y hasta el sistema institucional va a ser puesto en tela de juicio; el aparato productivo conoce límites infranqueables. Se puede pues hablar de crisis más o menos latente antes que acontecimientos exteriores la declaren abiertamente. Los conflictos y las guerras de finales del XVIII y de principios del XIX encuentran un terreno propicio

en esa situación de crisis y no consiguen aportar remedios adecuados"¹.

XVIII. mendearen bigarren erdian hasita, Foruen alde eta aurka dauden talde bi hauen arteko ezberdintasun eta eztabaidak gero eta ageriagoak izango dira.

1766.eko Matxinada

Foruen inguruko ezbaidekin batera (eta hauei lotuta), mugimendu eta matxinada ezberdinak ezagutu ziren Euskal Herrian XVIII. mendean zehar. Matxinadarik ezagunenetakoa Frai Bartolome jaió baino bi urte aurretik gertatu zena izan zen; 1766. urteko Matxinada, hain zuzen ere. "Azkoitia aldean lehertu eta handik berehala hedatu zen Gipuzkoara ez ezik Bizkaiko zenbait hiribildutara ere. Euskal Herriitik landa ere, Madrilén (1766ko Martxoan, Esqulache ministrariaren aurkako), Frantzian, Ingalaterran, errebolta ez gutxiren aipamenak egiten dira.

Funtsean bizibide mutinak direla esan daiteke; goseak edoeta haren beldurrak eragindakoak. Oinarrizko jangaien prezioak piskanaka-piskanaka mende hasieratik igotzen ari baziren ere, gorakada nabarmenena bigarren erdialdean nabaritu zen. Baserritar eta hiribilduetako langileen zamak, berriz, gero eta astunagoak ziren. Gose edoeta honen bildur zen herria (kontsumitzailea)"².

Orokorrean, 1766ko mutina kontsumitzaileek sustatua izan zen merkatari eta lurjabe handien aurka. Izan ere, desberdintasunak areagotzen ari ziren gizartean. Lurra gero eta esku gutxiagotan zegoen eta errentak gero eta handiagoak ziren. Era berean, baserritarrek hamarrenak ordaindu behar zizkien jauntxoei. Lurjabeak, beraz, ekoizpenaren zati handi batez ja-

¹Extramiana, J.: *Historia de las Guerras Carlistas* (I). Haranburu, San Sebastian, 1979, 39. orr.

²Elkar Lanean: *Foruen Aurkako Saioaldia eta Herri-Errebolta (XVIII. mendean)*. Gordailu, Donostia, 1984, 63. orr.

betzen ziren eta baserritarrei oso gutxi gelditzen zitzaien kontsumorako.

Matxinadaren ondorioz, elikagaien salneurrien jeitsiera lortu zen zenbait herritan. Dena dela, matxinadaren ondorengo errepresioa gogorra izan zen eta lur jabe handiek eta merkatariek merkatalgo askearen aurkako arauak berrezartzea lortu zuten.

Aipatzekoa da ere era honetako mugimenduek arrazoi ekonomikoak ezezik, kutsu forala ere gordetzen zutela. Lehen azaldu bezala, Foruek merkataritza askea mugatzen zioten merkataria eta lurjabeei eta, ondorioz, hauen aurkako jarrera hartzen zuten. Herri xeheak, aldiz, eskubide foralak lehen bezala mantentzea nahi zuen. Izan ere, foruen laguntzaz, gari eta beste labore batzuen pilaketak eta kanporaketak, prezioen deskontrolatzearen arrazoi nagusiak alegia, debekatu eta barne merkatua modu egokiagoan antolatzen laguntzen zuen.

Iraultza frantseza (1789)

XVIII. mendearen bukaeran oso egoera ekonomiko larrian zegoen Frantzia. Bestalde, Europa osoan zehar bezala, lehengo pentsalmolde guztiak zalantzan jartzen zituzten ideia berriak gero eta indar gehiago hartzen zioazen.

1789. urtean, Frai Bartolomek Korellako Karmeldarretan abiatua hartu zuen urte berean alegia, matxinatuek Bastilla hartu eta Frantziako Iraultza hasi zen. Frai Bartolomek 20 urte zituen Frantziako Erregimen Zaharrari amaiera eman zitzaionean.

Frantziako Iraultzak Ipar zein Hego Euskal Herrian eragin izugarria izango zuen. Hala nola, 1790. urtean Ipar Euskal Herriko hiru probintziak Biarnorekin elkartzea erabakitzen da Parisen. Euskaldunek erabaki honen aurka agertu baziren ere, Ipar Euskal Herria eta Biarnok departamentu bakarra osatuko dute hemendik aurrera. Era berean, Euskal Herrian ohituraz lurrak gurasoengandik seme-alabengana osorik pasatzen zirela errespetatu gabe, lurrak zatikatu eta banatzeko agindua eman

zuen Parisko gobernu berriak. Are gehiago, hemendik aurrera Iparraldeko euskaldunek Frantziako armadan soldaduzka egitera behartuak izango dira.

Hegoaldeko euskaldunen bizitzan ere eragin izugarria izan zuen Frantziako Iraultzak. 1793. urtean Frantziako aginte-batzarrak Espainiaren aurka gerrarako erabakia hartu baitzuen.

Komentzio Gerra (1793-1795)

Badirudi Frai Bartolome Nafarroan bizi zela Frantziak Espainiari gerra deklaratu zionean (1793.eko martxoaren 23an). Dena dela, euskaldun ez zuten nahi izan gerra honetan parte hartzerik. Frantziako Aginte Batzarra eta Espainiaren arteko kontua izanik, Euskal Herriak ez zuen hor zer ikusirik. Gainera, Espainiako errege zen Karlos IV.aren agintaritza ez zen euskaldunen gustokoa. Errege honen aginduak oso kaltegarriak izan baitziren Hego Euskal Herriko ekonomiaerentzat.

Ondorioz, frantziarrak Donostiara sartu zirenean, donostiarrak ez ziren haien aurka jaiki eta Donostiko Alkate zen Mitxelena inolako iskanbilarik gabe utzi zuen hiria frantsezen eskuetan. Gipuzkoako Batzarrak Frantziako Aginte Batzarra onartu eta Gipuzkoa frantsezen menpe gelditu zen.

Bizkaiko Batzarrak, ordea, legez jokatu nahi zuen, eta Bizkaiko Jaun zen Carlos IV.aren alde irten zen. Herriak, hala ere, ez zuen erregeak eta Bizkaiko batzarrak agintzen zuten bezala armak hartzerik nahi eta azkenean Frantziako Aginte Batzarra onartu zen.

Araban eta Nafarroan ere bakez sartu ziren frantsezak. Kontuan izan behar da, euskaldunen helburu garrantzitsuenetarikoa foruak babestea zela eta horretarako hobekien etortzen zitzaizkirekin (frantsez zein espainol izan) elkartzeko zirela.

Nekazal giroko guneetan frantsezen aurkako ekitaldi gutxi batzuk izan ondoren (batzuk lehengo euskal izaera eta gobernu arriskuan ikusten baitzituzten), 1795. urtean Basileako ba-

kea sinatu zen Espainia eta Frantziaren artean. Bake honen ondorioz, Frantziak Euskal Herrian eta Katalunian harrapatutako lurraldeak uzten zizkion Espainiari eta hoiengandik, Frantziak Santo Domingo uhartean Espainiak zuen partea lortzen zuen beretzat.

XIX. MENDEAREN LEHEN ERDIA (1801-1835)

XVIII. mendean bezala, altxamendu eta gerra ugari ezagutu ziren XIX. mendean lehen erdian. Zentzu honetan, mende hasierako lehen urteak ez ziren batere lasaia izan. Frai Bartolomek gerra bi (Frantsezen aurkako Independentzia Gerra eta Lehen Gerra Karlista) eta era ezberdinetako altxamenduak (Zamakolada eta Riegoren altxamenduak, bereziki) ezagutu zituen bere bizitzako azken hogeita hamabost urteetan. Altxamendu ezberdinen artean ezagunenetakoa, Zamakolada izenarekin ezagutzen duguna da.

Zamakolada (1804)

Nafarroatik noiz etorri zen zehatz mehatz ez badakigu ere, Frai Bartolome Markinan bizi zen 1802. urtean. Markinan zegoela, Zamakolada izeneko altxamendua pizten da Bizkaian. Napoleon enperadore bihurtzen den urte berean gertatzen da altxamendu hau, hain zuzen ere (1804).

Simon Bernardo Zamakola, Arratiako diputatua zen Bizkaiko Batzarre Nagusian. Bere helburua, Bilbori garrantzia kentzeko Abandon portu bat eraikitzea zen (1801). Merkataritza librea bultzatuko zuen portua eraiki nahi zuen. Asmo honek, Bilbo eta Bizkaiko jaureriaren arteko harremanak okertu zituen. Bilboko jauntxoak, ulertzekoa den bezala, erabakiaren aurka agertu baitziren. Honekin batera, Bizkaian soldaduzka iraunkorra ezartzea zen Zamakolaren beste asmo bat Madrilgo gobernuari portua egiteko baimena emana eskertzeko.

Asmo hauen bien aurka, Zamakolada izeneko altxamendua izan zen 1804. urtean. Foruak babesteko egin zen atxamendua izan zela esan genezake. Izan ere, soldaduzko iraunkorra foruen aurka zioan. Askoren arabera, Zamakolaren atzean Godoy ministroa zegoen eta bere helburu garrantzitsuena euskal Foruak desagertaraztea edo behintzat ahultzea zen.

Independentzia gerra (1808-1814)

1807. urteko urrian Frantziako armada Irunen sartu eta, behala, Euskal Herri osoa Napoleon-en guda-gizonen menpe gelditu zen. Handik gutxira, 1808ko apirilean, Fernando VII.ak agintea utzi eta Napoleonek bere anai Jose I.goa Espainiako errege izendatu zuen.

Momentu hau oso gogorra izan zela Markinako komentuan zeuden karmeldarrentzat eta, bereziki, Frai Bartolomerentzat pentsa daiteke. Izan ere, 1809. urtean karmeldarrak komentua husteru behartuak izan ziren eta Frai Bartolome atxilotu eta Etxebarriko Bikarioaren etxean konfinatuta egotera kondenatu zuten. Kontuan izan, Frai Bartolome Markinako predikari zela 1808. urtetik aurrera eta, ondorioz, eragin handia zuela herritarrengan. Itxura guztien arabera, Frai Bartolomeren sermoiak ez ziren Frantsezen oso gustokoak.

Egia esan, Frai Bartolome ez zen garai haretan frantsezen aurka zegoen bakarra. Hego Euskal Herriko biztanle gehienak jarrera bera zutela esan genezake. Izan ere, minoria txiki bat agertu zen bakarrik beraien alde; besteak beste, Frantziako Iraultzak ekarri zituen ideia liberalak gustokoak zituzten ilustratu batzuk eta frantsezekin negoziua egiten ari zirenak. Jose Extramianak dioen bezala, "...sólo una minoría colabora directamente con el ocupante; en ella, un sector 'ilustrado' y capas medias rurales que van a acrecentar su fortuna asegurando suministros al ejército imperial. Las autoridades forales adoptan una actitud vacilante; el miedo a Napoleón les incita a contemporizar con su ejército mientras que la reacción del pueblo les lleva a veces a solidarizarse con los insurrectos. Numerosos

notables rechazan toda colaboración directa o indirecta con el invasor; otros, junto al clero y al pueblo, se insubordinan³.

Frantsezen aurkako gerrak, ondorio ezberdinak izango ditu. Alde batetik, Lehen Gerra Karlistan parte hartze zuzena izan zuen fronte garrantzitsu baten sorrera ekarri zuen. Hau da, Karlosten eta Foruen alde altxatu zen agintari, elizgizon eta herriak osatutako frontea gorpuztu zen Frantsezen aurkako gerran. Independentzia gerraren beste ondorio bat, herri asko eta askok gerran egindako zorrei aurre egin ezinik herri-lur eta basoak saldu egin behar izan zituztela da. Egoera ekonomiko larriaren ondorioz, bidelapurak ere asko ugaritu ziren. Zentzu honetan, XIX. mendearen hasieran gizartea guztiz desagerturatu zegoela esan daiteke.

Aipatzekoa da ere, Frantsezak Espainian egon ziren bitartean, Cadizko Konstituzioaren aldarrikapena egin zela 1812. urteko martxoaren 19an. Aldarrikapen hau, euskal Foruen inguruan estabaida garrantzitsua bat zegoen testuinguruan ulertu behar da.

Batzuk, Foru Sistema aldatu eta modernizatu egin behar zela zioten. Beste batzuk, ordea, lehen bezala uztearen aldeko agertzen ziren. Azkenean ere, foruak desagitearen aldeko jarrera hartu zuten 1812ko konstituziozaleek. Ondorioz, aduanak barnekaldetik itsas aldera eta Pirinioetara eramane ziran, Espainia guztiarentzat justizi lege berdina eman ziran, euskaldunen zerga-arau bereziak galdu ziran eta Foru Diputazioak desegin eta Probintzia Diputazioak sortu ziran. Gertaera honek eragin izugarria izan zuen euskaldunengan. Gerra karlistetan lehertu ziren foruei buruzko eztabaida eta jarrera ezberdinak gero eta argiago gorpuzten ziozen.

1813. urteko abenduan Fernando VIIak Napoleonekin hitzarmena sinatu eta Espainiako errege-koroa berreskuratu zuen. Honela bada, 1814. urtean Fernando VII.a Espainiara itzuli eta monarkia absolutua eta Foru Sistema berrezarri zituen.

³ Extramiana, J.: *Historia de las Guerras Carlistas (I)*. Aip. lib., 52. orr.

Erregimen Absolutistaren Berrezartzea (1814)

Aurreko urteak bezala, Frai Bartolomeren bizitzako azken urteak ere nahasiak eta gatazka militar eta politikoz beteak izan ziren. Besteak beste, Lehen Gerra Karlista (1833-1839) hasi baino aurreko urteetan liberal eta absolutisten artean izan ziren iskanbila eta eztabaida guztiak eta Gerraren hasiera hurbil hurbiletik bizi izan zituela gogoratu behar da. 1817. urtetik 1820ra Frai Bartolome Markinako komentuko nagusi izan zela esaten badugu gainera, garaiko gora-behera politikoak zehatz mehatz jarraitzen zituela pentsa genezake. Izan ere, botere politikoa batzuen edo besteen eskuetan egoteak eragin izugarria zuen eleizaren eta ordena erlijiosoaren egoeran.

1820. urtean Riego-k 1812.eko Konstituzioa aldarrikatu eta Fernando VII.a konstituzionalismora itzultzea behartu zuen. Euskal Foruak bigarrenez galtzen dira. Egoera honek, dena dela, 1823. urterarte iraungo du. Hain zuzen ere, San Luisen 100.000 semeak Espainian sartzen direnerate. Fernando VIIak 1812ko Konstituzioa eta berau indarrean egon zen bitartean (1820tik 1823ra) egindako legeak baliogabetu eta Errejimen Absolutista berrezartzen du. Honela, ordena erlijiosoak, Markinako Karmeldarrak barne, berriro ere lehengo bizimodura itzuli ziren alde guztietan, beraien komentuak, lursailak, eskubideak e.a. berreskuratuz. Kontuan izan behar da, Riegoren Gobernu liberalak eleiz erreforma sakonei ekin ziola eta horrek komentu guztietan eragin izugarriak izan zituela. Frai Bartolomek Markinako komentuan berebiziko garrantzia zuela kontuan hartzen badugu, Errejimen Absolutistaren alde eta liberalen aurka zegoela pentsa dezakegu.

1823. urtetik aurrera Euskal Herriak bake garai labur bat eza-gutu bazuen ere, egoera aldatzen hasi zen 1826. urtean. Izan ere, Erregimen Absolutuaren aurkakoak gero eta ageriago eta indartsuago agertzen ziren eta iskanbila armatuak eta liskarrak ere gero eta normalagoak ziren. Euskal Herria gerrarako prestatzen ari zen. Dena dela, Karlisten altxamendua ez zen 1833.

urterarte hasi; hain zuzen ere, 1833. urtean Fernando VII.a hil eta bere alaba Isabel II.aren izenean Maria Kristinak erregetza hartu zuenerarte.

Lehen gerra Karlista

Espainiako eta Nafarroako errege Fernando VII.a hil zenean (1833), ondorengotzari buruzko erabakia berehala hartu beharra zegoen. Maria Kristinak erregetza bere esku hartzea ez zitzaien batere gustatu Karlos V.aren aldekoen eta, ondorioz, Lehen Gerra Karlistari hasiera eman zitzaion.

Dena dela, ondorengotza-eskubideez gain, gerra honen azpian bizimodu eta ideologia ezberdinen arteko borroka ere bazegoen. Tradizioaren eta aurrerapenaren alde zeudenen arteko borroka zen, alegia. Karlistak, nekazariak gehien bat, foruen, tradizioaren eta erlijioaren babesle ziren. Liberalak, ia gehienak hiritarrak, estatu-zentralistaren alde zeuden. Zentzu honetan, Karlistadek, ondorengotza eskubideei buruzko eztabaida izatez aparte, arazo ideologikoak azaleratu zituzten.

Lehen Gerra Karlista hasi eta bi urtetara, hau da, 1835.eko abenduaren 11an hil zen Frai Bartolome. Zazpi urte iraun zuen gerra honetako batailarik garrantzitsuena (Baztango bataila) gertatu zen urte berean.

EUSKAL HERRIA FRAI BARTOLOMEREN GARAIA (1768-1835): ZENBAIT ONDORIO

Artikulu honen hasieran, Frai Bartolome hobeto ezagutzeko jaio eta bizi izan zen testuingurua ezagutzeko beharrezkoa dela esaten nuen. Testuinguru honek lau berezitasun nagusi ditu:

- Alde batetik, Frai Bartolomerengandik bizitza eta lana nekazaritza nagusi zen garai batean ulertu behar da. XIX. mendearen bukaerara nekazaritza izan zela ekonomi jardueraren garrantzitsuena Euskal Herrian ez da aiantzi behar.
- Honekin batera, Erregimen Zaharra desagitzen ari zen garaian jaio eta bizi izan zela gogoratu beharra dago. Ezagutu zituen

matxinada, altxamendu eta gerra ugariak, beraz, desegite horren adierazle gisa ulertu behar dira.

- Guda giroa hurbil-hurbiletik ezagutu zuela ere aipatu beharra dago. Zehatzago esateko, Komentzio Gerra (1793-1795), Independentzia Gerra (1808-1814) eta Lehen Gerra Karlista (1833-1839) gertatu ziren garaian bizi izan zen. Eta hiru gudek ere eragin izugarria izan zuten herritarren eguneroko bizitzan eta bereziki ordena erlijiosoetan. Ez da ahantzi behar, Napoleonen gudagizonen Karmengo komentua zarratu eta Frai Bartolome konfinatu egin zutela bere sermoiak ez zitzaizkielako gustatzen.

- Bukatzeko, euskaldunen askatasuna aurkako ekitaldiak gero eta nabariagoak ziren garai bat ezagutu zuela esan daiteke. Foruen aurkako eraso ugari izan ziren bere garaian bizi izan zen: Komentzio Gerra (1793), Frantsezen inbazioa (1808), Kadizko konstituzioa (1812), Riegoren Altxamendua (1820)...Espainiarekiko menpekotasuna handitzen zioan garaia zen inolako zalantzarik gabe.

Erabilitako bibliografia

- Baraizarra, L.: *Euskal Herriaren Historia* (II). Gero, Bilbo, 1977.
- Baraizarra, L. eta Urkiza, J.: "Markinako Udala Karmengo Komentuaren Babestaile Aparta". *Garaian*, 8. zenbakia.
- Elkar Lanean: *Foruen Aurkako Saioaldiak eta Herri-Errebolak (XVIII. mendean)*. Gordailu, Donostia, 1984
- Extramiana, J.: *Historia de las Guerras Carlistas* (Vol. I). Haranburu, San Sebastian, 1979.
- Mugartegui, J.J.: *La Villa de Markina. Monografía Historica*. Imp. Echeguren y Zulaica, Bilbao, 1927.
- Urkiza, J.: *Karmeldarrak Markinan* (1691-1991). Historia eta agiriak. Karmel Sorta 5, Zornotza, 1992.

Patxi Juaristi